

Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: *Euzkadi* eta *Euzko* (1913-1934)

Javier Díaz Noci
EHUko irakaslea

Gerra aurreko euskal kazetaritza behar bezala ezagutzeko ezinbestekoa da prentsa abertzalea ikertzea, euskaraz idatzitako kazetaritza haien bakarrak egin ez bazuten ere. Pentsamolde sabindarrean euskarari zeregin menpekora ematen zaio, arrazaren ikur bihurtuz, eta horregatik aldizkari eta egunkari jeltzale gehienetan hizkuntzak oso betebeharrak testimentialak betetzen du. Hala ere, badago euskara hutsezko aldizkaririk, hala nola 30.eko hamarkadan Lauaxetak abian jarri zuen *Euzko* astekaria. Bestalde, jeltzaleen egunkaria zen *Euzkadi*-n ere hiru idazle bikainek eratu zuten euskarazko informazioa emateko modu bat hango *Euzkel orria*: Kirikiñok, Orixek eta Lauaxetak.

In this article, we research some Basque-language press of the nationalist parties before the Civil War. Although they were not the only ones that published Basque-language papers, and maybe they were not the most important either, we must refer to nationalist papers if we want to know well the pre-war Basque journalism. In Sabino Arana's ideology, language receives only a subordinate function, because he saw it as a sign of the Basque race. Because of that, Basque-language is only a testimonial part of the P.N.V.'s papers. Nevertheless, there are some exclusively Basque-language nationalist papers, such as *Euzko*, a weekly that Lauaxeta created in 1932. Also in P.N.V.'s principal journal, *Euzkadi*, appears a Basque-language section, *Euzkel orria*, where three good writers construct a form of giving the information in Basque language Kirikiño, Orixe and Lauaxeta.

Euzkadi, egunkari abertzale jeltzalea

I. Euzkadi-ren sorrera (1913-1918)

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan aldizkari abertzale jeltzale bana ezarri ondoren (*Bizkaitarra, Gipuzkoarra, Napartarra* eta *Arabarra*), eta abertzaletasunaren arrakasta gero eta handiagoa ikusita, Euzko Alderdi Jeltzalearen agintariek, 1907tik 1914ra arte Luis de Arana Goiri Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria zelarik, egunkari jeltzale bat argitaratzea erabaki zuten. Prestakuntza-lanak 1910ean hasi ziren. Bi enpresa eratu ziren horretarako, Euzko Pizkundia eta Tipográfica General, bi iturritatik zetorren diruarekin: alde batetik, jeltzale aberats batzuek 150.000 pezeta jarri zituzten, eta beste 100.000 pezeta obligazio txikietatik etorri ziren. Jabea Euzkadi Buru Batzarra zen, Engracio Arantzadi zuzendari izendatu zuena. Momentu hartan, Bilbon bazeuden beste bost egunkari, baina, esan bezala, Euzko Alderdi Jeltzalea gero eta afiliatu gehiago lortzen ari zen: 1909an 380 zituen, eta 1915ean mila paseak. Egunkaria 1913an hasi zen argitaratzen, PNV CNV (Comuni3n Nacionalista Vasca) izatera pasatzen denean¹. Bilboko eta Euskal Herriko egunkaririk nagusienetakoa bat izatera iritsi zen, momenturik onenetan 10.000 ale kaleratzen zirelarik.

Egunkaria, non euskarak lehenengo aldiz eguneroko prentsan leku bat aurkituko zuen, 1913ko otsailaren 1ean hasi zen kaleratzen. Euskal atala Ebaristo Bustintza Kirikiñok zuzentzen eta, lehenengo momentuetan behintzat, egiten zuen ia bakarrik². Kirikiñok, berak zuzentzen zuen ataltxoaren hasieran lehen orrialdeko zutabe bat bakarrik – euskaraz idatzi nahi zuten abertzale guztien bilgunea egin nahi zuen. Aldi berean, Bustintzak Arana-aren eredia gauzatzeko aukera izango zuen. EAJk ere euskara-ikastaroak antolatu zituen³. Donostian ere ikastolaren bat eratzeke asmoa zegoen; zehazki Evaristo Txurrukak 1913an euskara irakasteko eskola bat antolatu nahi izan zuen⁴. Argi dago jeltzaleek –baina ez horiek bakarrik, jakina– neurri handi batean euskara ikasteko zale-atasuna eta, era berean, euskararen berpizte bat sortzen lagundu zutela. Hizkuntza arrazaren osagarria zelarik, eta kontutan izanik abertzale jeltzaleek zenbaiterainoko garrantzia ematen zioten, ez da beraz harriztekoa *Euzkadi* egunkarian euskarari buruzko testuak euskaraz ezezik erdaraz ere argitaratzea, askotan egunkari jeltzalearen orrialdeak euskaltzaleen zenbait eztabaidaren topaleku bihurtuz.

Hala ere, Kirikiñok oso lan handia egin zuen *Euzkadi* egunkariaren orrialdeetan. Bere euskarazko atala, “Egunekua”⁵, 1929an hil zen arte zuzendu zuena, euskal kazetaritzarako

1. 1915ean Luis de Arana alderditik kanpo jarri zuten, eta beren aldekoek PNV berriro eratu zuten. Banaketa 1930. urtera arte mantendu zen.

2. Bustintza izan zen R.M. Azkueren bigarren kazetaritza-egitasmoaren zuzendaria (*Ibaizaba*). Azkuek berak ekarri zuen Sigüenzatik Bilbora. Gero, 1919an Euskaltzaindia sortu zenean, Azkue euskaltzainburu bihurtu zen bitartean, Bustintza Akademiaren kontrakoak ziren aranisten buru bihurtu zen.

3. 1913/III/29, 56. zenbakia.

4. 1913/II/17, 17. zenbakia.

5. Labayru Ikastegiak Bustintzaren bi artikulua bilduma argitaratu ditu: *Egunekoa* eta *Edo geuk edo iñok* ez (Bilbo, 1984).

ezinbesteko zutabe eta oinarri dugu. Haren ondoren, beste bi idazle funtsezkoak zuzendu zuten: Nikolas Ormaetxea “Orixe”-k eta Esteban Urkiaga “Lauaxeta”-k. Dakigunez, Bustintza kazetaritza-lanetan ibilia zen, Azkuerekin batik bat. Ondo ezagutzen zuen, gainera, euskal prentsa, hala nola Baionako *Eskualduna*⁶. Bere jarrera linguistikoa, hala ere, desberdina izango da: nahiz eta euskara garbia erabiliko zuela aldarrikatu, berak ere neologismo asko eta asko erabiltzen zituen. Ezin ukatu, ordea, Ebaristo Bustintzak hizkuntza idatziaren eredu oso bat finkatu zuela.

Kirikiñoren emaitza euskal kazetaritzan ez da hizkuntz eremuan bakarrik gauzatzen. Bere eguneroko testutxoarekin batera, euskarazko atalean Euskal Herriko berri labur batzuk eskaintzen hasi zen Bustintza, pixkanaka-pixkanaka berriemate edo korrespondentsal-sare bat antolatu arte. Tokian tokiko informazioari, beraz, garrantzi handia eman zion, *Eskualduna*-k egiten zuen bezala (*Euzkadi*-ren euskal atalean, noski, neurri txikiago batean), gero euskal prentsa osoan eredutzat hartuko zena. Zer esanik ez, egunkarian erdaraz ere bazeuden berri lokal batzuk. Beraz, esan daiteke Kirikiñoren ereduak bi zirela: bata, kanpokoa eta euskarazkoa, eta bestea, barrukoa eta erdarazkoa.

Euzkadi-ren euskarazko atala irakurle berri bat sortzen ari zen nonbait. Euskaldun askok, maiz beren hizkuntzan alfabetatu gabeak, zailtasunak omen zituzten euskaraz irakurri ahal izateko, eta euskara eguneroko prentsan agertzeak dudarik gabe laguntza

handia ekar diezaikeen: «Txikitatik asi ta geiago, nagusi egin arte, beti erderaz irakurri ta ikasi dauan euskalduna, erdalduna geiago izaten da euskalduna baño»⁷, aitortzen zuen Bustintzak. Orduan, nola idatzi, zer euskara erabili behar zen? Hor zegoen gakoa. Kirikiñoren ustez –eta hor zeuden Urkixo eta Gregorio Mujikarekiko eztabaidak– posible zen “euzkera garbijaz” idaztea, hau da, Aranaren ereduari jarraitzea, euskaratik erdarazko hitzak kenduz eta hitz berriak ezarri. Bat zetorren honetan Imanol Arriandiagarekin, 1912an *Umiak aitortuten eta jaunartuten* liburuxka argitaratu eta askok irakurri omen zutelako: «Asko *esan dot*», azpimarratzen zuen Ebaristo Bustintzak, «onez gañera, neuk dakit ondo euzkera garbidun idazkayak askok irakurten dabela, poz-pozik gero irakurri be»⁸. Eta jarraitzen zuen: «Oker dago orretan José María de Ojartide ori [Mujikaren goitizena], ta berak lez orixe esaten daben asko be bai». Mujikak zera defenditzen zuen: euskara erraza erabili behar zela, ahalik eta gehienek, eta batez ere euskaldun zaharrek, uler zezaten. Hau da, 1921-etik *Argia*-k proposatuko duen eredu. Hona hemen bada bi eredu oso desberdinak: bata, Ebaristo Bustintza eta aranistena, euskara “garbia”-ren aldekoa, *Euzkadi*-koa, eta bestea, Mujika, Garitaonaindia eta euskara errazaren aldekoa, *Argia*-koa.

Julio Urkixorekin ere ez zen tirabirik falta. Kirikiñok antzinako euskal testuak berrargitaratzea kritikatu zion, “kirtenkeriak” zirela omen zioen: «Nik, benetan diñot, orrelako idaztirik (libururik) iñon aurkituko baneu, apurtu egin-

6. *Euzkadi*, 1913/V/31, 118. zenbakia.

7. 1917/XII/7.

8. 1914/II/4.

go neuke ta iñok ez leuke jakingo, lotsagarriak diralako»⁹. Urkixok (Kirikiñok aipatzen du, eta hor dago arazo nagusia) zera esan omen zuen: «Soy partidario de la purificación (relativa, claro está) del léxico vasco; lo que desapruuebo es que ejerzan de purificadores y de etimólogos, los que carecen de preparación suficiente para tan difícil labor». *Touché*. Ebaristo Bustintza minduta sentitu zen, eta Sabin Arana Goiriren eta Imanol Arriandiagaren estalpean, Mañariakoak ere beraiek «asmaturiko itz eder egokiak, euskerearen sustar-sustarretik sorturikoak», onartzen baitzituen. Bi eredu zeharo desberdinak, bistan dago, eta Kirikiño aranisten bozeramale eta sinbolo bihurtzen ari zen. Denboraren poderioz, eskola aranistaren buru izan zen, hil ondoren ere bai, eta Euzkeltzale Bazkunak lehenengo (*Euzko Deya* aldizkaria lekuko), eta *Euzkerea* aldizkariok geroago, Euskaltzaindia sortu ondoren (30.eko hamarkadan), haien “maixu”-tzat hartuko zuten.

1914an Lehen Mundu-Gerra piztu zen. EAJren –eta batez ere Euzkadi Buru Batzarraren eta *Euzkadi*-ren–jarrera aliadofiloa izan zen; Luis de Arana eta bere jarraitzaileena, aldiz, germanofiloa. Aranaren iritzia, Meesek dioenez, merkatal irizpideen aurka ere bazihoan¹⁰. Engracio Arantzadi, aldiz, oso moderatu ageri zen (Mees 1990: 128):

El viejo sueño de los Euskalerrriakos del nacionalismo vasco, como partido de orden social y refugio para los

intereses de las “Fuerzas vivas”, dominó la estrategia nacionalista durante los años de la Guerra totalmente (...). Con esta incorporación al nacionalismo de una parte importante de la clase obrera vasca por un lado y de sectores socialmente más elevados a consecuencia del giro burgués del partido por otro, se habían sentado las bases del enorme avance electoral del nacionalismo vasco entre 1917 y 1919.

Aurreko hamarkadetako bi korrante nagusien (jelkideak eta euskalerrrikoak) hurbilketa dugu, 20 eta 30.eko hamarkadetan abertzale moderatu gehienen, eta apaizgo euskaldunaren atxikimendua lortuko duena, horra hor Ariztimuño, Onaindia, Larrañaga eta “apaiz propagandisten” lana, bai kulturaren, bai sindikalismoan, baita kazetagintzan ere. 1916. urteaz gerostik, alderdiaren barruan demokratizazio handia gertatu zen, organo zentralak bultzatuz (lurraldekoek beren indarra neurri handi batean galtzen zuten). XX. mendeko 20 eta 30.eko hamarkadetan erabat indartuko zen mikrogizarte abertzale jelkidea hasia zen jadanik: 1911ean, esate baterako, Solidaridad de Obreros Vascos sortu zen. Euzko Gaztedia ere eratuta zegoen, eta euskararen aldeko lana berarekin lotuta agertuko zen Euzkeltzale Bazkunari zegokion¹¹. 1916an *Euzkadi*-k, Kirikiño noski hor atzean zegoela, “Euzkel Laguntza” deituriko kanpaina bati ekin zion, «euzkereari indarra emongo dautsoen bideak edegi ta zabaltzeko»¹². Euzkeltzale Bazkunaren ideia hor nonbait zebilen. Gero Emakume Abertzale Batza sortu zen. 1917an eta 1918an

9. 1914/VIII/17.

10. «Durante los años de la Guerra», dio Ludger Mees-ek (1990: 128), «el diario *Euzkadi* vivió un, hasta entonces y después desconocido, éxito comercial con aumento de suscripciones y grandes beneficios económicos, por lo cual cualquier cambio de la línea editorial hubiera sido contraproducente».

11. Ikus, adibidez, 1916ko otsailaren 6ko *Euzkadi*-n agerturiko “Euskerearen alde. Bart Euzko-Gaztedijan”, *Edo geuk edo iñok ez* liburuaren 133. orrialdean irakur daitekeena.

12. *Euzkadi*, 1916ko otsailak 26.

jelkideek, eta batez ere haiek kontrolatzen zuten Bizkaiko Foru Aldundiak, lehenengo kanpaina autonomista hasi zuten (Mees 1990: 129). Baina 1919ko apirillean Maura, Romanonesen Gobernua krisialdian sartu ondoren, itzuli zenean, esperantzak desagertu egin ziren. Berrito Mees-en teoria onartu behar dugu hemen (1990: 132): aber-tzaletasun jelkidearen etapa bat bukatu zen puntu honetan, eta 1919an bi joera agertu ziren:

El comienzo de un largo proceso de concienciación política, al final del cual, ya en los últimos años de la Segunda República, llegarían los nacionalistas a la convicción de la imposibilidad de conseguir la autonomía con los partidos de la derecha y se produciría, por lo tanto, el giro del PNV hacia los partidos de la izquierda. La segunda tendencia que en seguida se haría notar consistiría en la radicalización de las bases nacionalistas y la crítica al modelo nacionalista conservador y burgués.

1921ean Comuni6n eta aberrianoen (PNV) bereizketa ekarriko zuen honek. Baina pixkanaka-pixkanaka, abertzale-tasun jelkidea hurrengo bi hamarkade-tan, eta batez ere Errepublikan, hain arrakastatsua izango zen egitura, joera eta norabideak ezartzen hasia zen; baita euskal kazetagintza jelkideari zegokionean ere.

II. *Euzkadi* 20 eta 30.eko hamarkadetan

1919. urtetik eta diktaduraren urte ilunetan, *Euzkadi*-ren euskarazko atalak, Ebaristo Bustintzaren eskutik, momenturik onenak bizi zituen. Bustintzak, langile nekaezina, atalari forma eman eta finkatu egiten du. Bere

jarrera ere finkatu egin zen: Euskaltzaindia sortuta, Bustintzak bere iritziak –sabindarrak, azken finean–, tinko mantendu zituen, eta, nahiz eta Euskaltzaindiaren sortzaileek eskatu, ez zen Akademian sartu. 1919an Gregorio Mujikarekin eztabaida sutsua izan zuen: «Está fundada la Academia de la Lengua Vasca», zioen Mujikak J.M. de Ojarbide izengoitipean, «la saludo sobre todo con la promesa de mi adhesión firmísima y de mi absoluto acatamiento (...). Euzkaldunes: Por el amor ferviente que siento hacia mi idioma, rindo a la Academia el homenaje de un solemne voto de obediencia»¹³. Eta Bustintzak, *Abertzale* izen-goitia erabiliz, honela erantzun zion:

He aquí que yo, como vasco, que amo nuestra lengua como el que más, y creo que con más fundamento que varios de los académicos pertenecientes a la citada Academia, ni puedo, ni debo hacer voto de obediencia a las decisiones de dicha entidad (...). No hemos tenido, ni tenemos más que un maestro: Sabino. Convencidos plenamente por él, seguimos rectamente el camino que en euzkeralogía nos trazó. Esa escuela sabiniana es para nosotros la única verdadera, mientras no nos convenzan de lo contrario. A ella nos debemos y a ella nos atenemos. Para ella sólo, que es la verdad, será nuestra obediencia”¹⁴.

1920an Euskaltzaindiaren idazkaria zen Pierre Lhanderekin ere eztabidak izan zituen, bozketa era zela eta. Harrezkero, lehenago bezala, Kirikiño-ren irizpideak eskola sabindarraren gidari bihurtuko ziren.

Argia-ren sorrerak itzelezko eragina izan zuen Bustintzarengan. Nolabait,

13. *Euzkadi*, 1919ko irailak 27, 2408. zenbakia.

14. 1919/X/2, 2340. zenbakia.

bere gogoen isla zen astekari hura, Azkueren aldizkariaren bidetik abiatu zena, egituraren aldetik batez ere: astekari bat, egunkari-itxurarekin, euskara hutsez, informatiboa neurri handi batean... 1928an, hil baino urtebete lehenago, Bustintzak hala zioen:

Zenbat bidar esan eta entzun ete da, emen Bizkaian be euskeraz bakarrik egindako izparringi asteroko bat bear geunkela, Gipuzkoan Argia dauken lez! (...). Orra ba, emen olako izparringia atarateko eragozpen asko ta andiak azpiratu bear dira. Ia-ia ezintzat euki lei izparringi-atarate ori, ain andiak eta ugariak dira eragozpenok¹⁵.

Abertzale jelkideek Bustintzaren ametsa gauzatu zuten urte batzuk geroago: *Euzko*, geroxeago aztertuko dugun astekaria. Bitartean, Kirikiñok gogor jarraitu zuen lanarekin. Euskadiko berri informatiboen atala, batez ere, finkatu zuen Bustintzak. Esan bezala, Ebaristo Bustintza 1929an hil zen. Harrezkero, bere izena zeraman sari bat eratu zuten, euskarazko kazetaritza lan hoberenentzat.

30.eko hamarkada izen berri batzuen garaia da: Orixek, Lizardi, Lauaxeta... Nikolas Ormaetxea eta Esteban Urkiaga *Euzkadi*-ren euskal atalaren arduradun bihurtu ziren. Bigarrenak beste zenbait proiektu informatibo euskaldunetan ere esku-hartu zuen.

Euzkadi-n sartu zenean, 1927an, Orixek ez zen jesuita. 1923an Lagundia utzi eta Bilbora joan zen, eta jelkideekin harremanak sendotu zituen. Lehenago, ikusi bezala, Ormaetxeak, 1888an Orexan jaioa, kazetari lan batzuk egin zituen, jesuiten *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkarian. 1927an

Euzkadi-n hasi zen idazten, erdaraz batez ere, euskara eta literaturari buruz. 1929an, Bustintza hil ondoren, egunkari jeltzalearen euskal atalaren arduradun bihurtu zen. Euskarazko atala bere mamian mantendu zuen Ormaetxeak, baina aurrerapausu bat nabaritzen da: euskal kulturak, eta bereziki euskarazko literaturaren bide berriek bere lekua aurkitzen dute *Euzkadi*-ren orrialdeetan. Gehienetan, eztabaidak erdarazkoak ziren, euskarari buruz izan arren. Bertan, Ormaetxearekin batera, Lizardik, Lauaxetak, Aitzolek... parte hartzen dute. Ormaetxeak berak kritika literario asko eta asko egin zituen, nolabait bere irizpideak ere finkatuz. Abertzale-jeltzale-tsunarekin lotuta agertzen zen euskal berriaren izenak, azken finean.

Orixek, jesuita ohiak, beste berrikuntza bat ekarri zuen *Euzkadi*-ren euskal atalera: aldatze erlijiosoak. Egunero agertzen zen "Egunekua" ataltxoa –Kirikiñoren iruzkina– desagertu eta "Euzkeraz: Gaurko ebanjelioa" azaldu zen. Ataltxoa berriro desagertuko da Esteban Urkiagak euskarazko atala bere gain har dezanean.

Baina bazirudien orexarra literaturaz eta mistikaz kazetaritza baino kezkatuago zegoela. Villasantek (1979: 418) hala dio:

De carácter un poco intemperante, poco o nada ducho para resolver los problemas prácticos de la vida, Orixek mantuvo una fidelidad nunca desmentida a su fe religiosa y a su vocación literaria vasca.

1931n, Errepublika heldutakoan, Orexak bere jaioterrira joan zen, *Euskaldunak* bere poema eskerga idaztera. Beldurrik gabe esan daiteke

15. 1928/V/1.

Nikolas Ormaetxeak oso aztarna gutxi utzi zuela euskal kazetaritzan, bere izaera ez baitzen eguneroko informazioak ezartzen duen praktikotasunera egokitua. Hala ere, frankismo garaian, Lizardi eta Lauaxeta hilda, lehenago Bustintzak bete zuen lekua, jeltkideen artean, hartu zuen Orixek:

En la época en que el franquismo ponía cortapisas a todo lo vasco, Orixe vino a ser para los cultivadores y amantes del euskera algo así como el divo, el símbolo o encarnación de sus ideales. El exilio no hacía sino agrandar el halo de su figura (Villasante 1979: 418).

1931ean, beraz, Esteban Urkiagak bere gain hartu zuen euskarazko lana *Euzkadi*-n. 1905ean Laukinizin jaioa, Esteban Urkiaga, Nikolas Ormaetxea bezala, jesuita izan zen. Lagundia 1928an utzi zuen, eta orduan Bilbora joan zen, *Euzkadi*-n lan egitera. Egunkari jeltkidean agerturiko lehenengo testua, olerki bat, 1929ko otsailaren 1ean agertu zen (Urkiaga/Kortazar 1982: 10). Bustintza zendu zenean, Orixerekin batera lanean ihardun zuen euskal atalean. Orixerak utzi zue-nean, Lauaxeta arduratu zen euskal atalaren zuzendaritzaz.

Urkiagaren lana oso garrantzitsua izan zen. Bere bi aitzindarien emaitzak nolabait bildu eta borobildu zituen. Alde batetik, Bustintzaren informazio-lana osatu zuen, korrespontsal edo berriemalen sarea sendotuz. Beste alde batetik, Orixeren “Gaurko ebanjelioa” atala kendu (nahiz eta Urkiaga ere erlijiosoa izan, bere testuetan argi eta garbi azaltzen zuen bezala), eta mami literarioa mantendu, baina euskaraz. Maila ere ez zen hain elitista:

kritikekin batera, Lauaxetak poesiak, ipuinak, kantak eta denetariko testu literarioak argitaratu zituen. Kirikiñok bezala, iruzkin edo komentarioak argitaratzen zituen, denetarikoak. Politikoak ere ez dira falta. Esteban Urkiaga alderdiarekin oso konektatuta zegoen. Bere lana, hasieran Ormaetxearen agindupean olerkiak itzultzea eta literaturazko artikuluak idaztea bazen ere, euskal atalaren arduratu hartu zue-nean, “Azalpenak” atala (denetariko iruzkinak) idazten hasi zen. 1933an euskarazko sailak ugaritu egin zituen: “Azalpenak”, “Temas vascos”, “Egunkaria”. Hori iruzkinei dagokienez. Berriei dagokienez, Kortazarrek ondokoa azpimarratzen du:

Albista edo barri txikiok ez dira izaten nahitaez, iritzizko artikuluak. Gertatu izan danarekin, aktualitatearekin lotura estuagoa izaten dabe, eta inoiz Atletiren partiduen berri ere emoten dauskue.

(Urkiaga/Kortazar 1982: 12)¹⁶. Hori dena olerkigintza utzi gabe. Hori bai, bere izenpea desagertzen da *Euzkadi*-ren orrialdeetatik. Esteban Urkiagaren lana isilpekoa izango da –horren berri batzuk ikusiko ditugu *Euzko* edo *Eguna*-ren kasuetan– baina oso eraginkorra, oso praktikoa. Bazirudien euskarazko egunkari baterako pausak ematen ari zela laukiniztarra, pausu zuhur baina ziurak. *Euzkadi*-ren euskal atalen egiturak gero eta egunkari baten itxura handiagoa zuen: berriak, kultura, iruzkinak, iritzizko artikuluak... Euskarazko egunkariaren proiektuak porrot eginda –proiektu hurra, gogora dezagun, batez ere Gipuzkoan sortu zen, *Argia*-ren inguruan– jeltkideak, Lauaxetaren bitartez, beren urratsak ematen hasi ziren. Eta lehenengo pausua *Argia* bezalako astekari

16. Liburu horretan Urkiagaren kazetaritza-lanen adibide batzuk ageri dira.

bat, jeltzalea eta bizkaierazkoa, sortzea izan zen.

Euzko, euskara hutsezko egunkari jeltzalea bidean

1932ko erdialdean abertzaleek *Eguna* kaleratu arte anbiziorik handienarekin euskara hutsez egindako aldizkaria agertu zen: *Euzko*. Euskaldunon hizkuntzaz idatzitako lehenengo egunkaria (1929) sortzeko asmoak porrot egin ondoren, badirudi *Euzko* izan zela Euzko Alderdi Jeltzalearen arduradunen erantzuna, edota, esan dezagun, etorkizunean euskarazko egunkaria ateratzeko urratsik sendoena, proba bat agian. Funtsean, Gerra Zibilean sortu zen lehenengo euskal egunkaria zen *Eguna*-ren eta *Euzko*-ren artean bazegoen antz handia; lehena zuzendaria bera: –Manuel Ziartzolo “Abeletxe”–.

Euzko-ren garrantzia azpimarratu nahi genuke. *Argia*-ren kasuaren antzera, gaur egun *Euzko* aski ahaztuta dugu¹⁷, Donostiako astekaria baino gehiago. Noski, *Euzko*-k ez zuen lortu *Argia*-k beste urte irautea, ez eta Donostiako aldizkariaren irakurleria handia ere. Baina oker egoteko beldurrik gabe esango dugu puntu askotan *Euzko*-ren egileek *Argia*-ren ereduari jarraitu ziotela, nolabait *Euzko* izan zela Errepublikan urte batzuk lehenago Kirikiñok Bizkairako nahi zuen *Argia*-ren bezalako euskal astekaria. Atal honetan *Euzko*-ren ezaugarriak

aztertuko ditugu, *Argia*-rekiko hauen parekotasuna. Argi eta garbi azpimarratzen saiatuko gara zein zen EAJK kaleratutako astekari haren garrantzia, jeltzaleek proposatzen zuten euskara hutsezko aldizkariaren –are gehiago, egunkari hipotetikoaren– eredu delako. Lehenago EAJ-rekin lotuta zeuden beste euskara hutsezko aldizkari batzuk ere bazeuden –*Euzko Deya* esaterako– baina hauen kutsua kulturala zen, eta ez informatiboa; beste modu batez esatearren, *Euzko* izan zen, gure ustez, jeltzaleek euskara hutsezko egunkaria sortzeko egin zuten lehen saiakera, garai hartako egunkariekin eta batez ere *Euzkadi*-rekin antzik handiena zuen aldizkaria. Hala ere, *Euzko*-k bazituen berezitasun batzuk, *Euzkadi*-rekin ezberdintasunak ondo ezartzen zituztenak. Hitz batean esateko, jeltzaleen euskarazko astekari hura erdarazkoak baino erradikalagoa zen, EAJkoek, *Euzko* Gaztediaren bidez, euskara beren ideien erradikalatasuna aldarrikatzeko uzten baitzuten.

Euzko-ren lehenengo bi aleak data-rik gabe agertu ziren, baina lehenean “Iñaki Deuna”ren egunean aterea zela diotenez, badakigu 1932ko uztailaren 30ean agertu zela. Astekaria izanik, bigarrena abuztuaren 6an agertu zen antza, hirugarrenak bai baitakar data: «1932ko dagonilaren 13». Ezagutzen dugun azken zenbakia 1934ko martxoaren 30ekoa da, urte hartako Aberri Eguna ospatzeko kaleratutako ale berezia, baina, beste aldizkarietan

17. Guk dakigunez, gaur egun *Euzko*-ren bilduma bakar bat gordetzen da, Derioko Labayru Ikastegian, eta hura ere ez osorik, ale batzuk eta berarekin batera saltzen zen *Gastetxu* komikiaren ale guztiak falta direlako. Bilduma Altamira-Busturian bizi zen Tomas de Uriarterena izan zen. Bilduma hura da guk gehien erabili duguna. Beste bi ale ere erabili ditugu, Gasteizko Sancho el Sabio Erakundearen daudenak, laugarrena eta 87.a, 1934ko Aberri Eguna ospatzeko agertu zen ale berezia dena, azken hau nahikoa garrantzitsua, Tomas de Uriarteren bilduman ez dagoelako. Sancho El Sabio Erakundearen *Gastetxu*-ren ale bat ere ikusi ahal izan dugu.

ikusi ditugun aipuengatik, badakigu 1934ko ekainean desagertu zela¹⁸.

Euzko Euzko Gaztedi eta Euzkeltzale Bazkunatik gertu zegoen. Horrek esan nahi du, ideologiari dagokionez, Euzko Alderdi Jeltzalearen “aparatura” baino erradikalagoa zela. Badakigu euskaraz egindako ekintza guztiak Euzkeltzale Bazkunaren ardurapean zeudela, eta euskara berpizteko elkarre hura Euzko Gazteditik hurbil zegoela. EAJri estuki lotua izanik, askotan ohar ofizialak –batez ere Bizkai Buru Batzarrarenak– argitaratzen zituen. Badirudi Bizkai Buru Batzarrak berak zerikusi handia izan zuela *Euzko*-ren jaiotze-prozesuan: *Eguna*-ri buruzko bere tesinan, Gorka Reizabalek Ziarsolok berak kontatutako pasadizo hau jaso zuen. Gerra Zibilean agertu zen euskal egunkariarekin erlazionatzen du, baina dudarik gabe *Euzko*-ri dagokio:

[Ziarsolo] se levanta en una reunión del Bizkai Buru Batzar (Comité Regional de Vizcaya) para insistir en la idea de la necesidad de un diario “Euskeldun” y para lanzar una frase que en aquel momento pareció fanfarronería: “Si me dais dinero, yo lo hago”. Eso debió ocurrir hacia el año 1932 –ni el propio autor lo recuerda– pero nadie le dio crédito, o bien las circunstancias hicieron imposible el nacimiento de *EGUNA* ese año (Reizabal 1973: 31)¹⁹.

Kasualitate hutsa izango da proposamen hura egin zen urte berean *Euzko* agertzea, Ziarsolok zuzendua? Guk ezetz uste dugu. Egunkari bat argitaratzea ezinezkoa iruditzen bide

zitzaielarik, jeltzaleek haren ordeztasunari bat kaleratzea erabaki zutela uste dugu. Manuel Ziarsolo Gironella, 1902an Bilbon jaioa, «aficionado a escribir en euskera desde muy pequeño» (ibidem), gizon egokia zen horretarako, *Euzkadi*-n, *Ekin*-en, *Euzkerea*-n eta garai hartako beste hainbat euskarazko aldizkarietan idazten trebatua, bazekien zer zen kazetaritza. Hala ere, badirudi hasieran *Euzko*-k beste zuzendari bat izan zuela, Artibai (beste batzuen ustez, aldiz, lehen zuzendaria Jose de Ituarte izan zen). Ez dakigu ziur zer jokabide izan zuen Estepan Urkiaga “Lauaxeta”-k *Euzko*-ren sormenean, baina bera ere hor zebilela iger dezakegu. 1931ean Nikolas Ormaetxea “Orixe”-k –ordurarte *Euzkadi* egunkariaren euskal atalaren arduraduna izan zena– Orexa bere jaioterrira *Euskaldunak* idaztera joatea erabaki ondoren, Lauaxeta Euzko Alderdi Jeltzalearen egunkariaren euskal atalaren zuzendari bihurtu zen. Lehenago ere Orixeren laguntzailea izan zen. Urkiagak beste euskal aldizkari batzuetan testu mordo bat argitaratuta zeukan; hauetan ez bezala *Euzko*-n agertuak politikoak dira. Ezin politikoagoak, erantsiko genuke. 1933ko hauteskundeetatik, Estepan Urkiagararen testuak ugaritu egin ziren. Esan daiteke *Euzko*-ren pentsamoldea gauzatu egiten dela Lauaxetaren hitzetan. Badakigu, hori bai, gerra garaiko *Eguna* eta *Gudari* sortzeko prozesuan izugarritzko garrantzia izan zuela Mungiako olerkariak; hau da, 1932. urtetik, gutxi gorabehera, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta bere inguruko euskal aldizkariak berak

18. 1934ko ekainaren 17ko *Argia*-n berria ematen zaigu eta lerro hauek irakur ditzakegu: «Euskera alde aldapa gora, geiago eziñean bezala ari geranontzat berri txar ta tamalgarria zaigula esan bearrik ez (...). Ez genuen uste 'Euzko'k irakurle gutxi zituunik. Baño gutxixo zitalako il-da aidanean».

19. Reizabalek Ziarsolorekin 1973ko abuztuaren 17an egindako elkarrizketako hitzak ditugu. Gorka Reizabali gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu bere tesina ezagutarazi eta kopia bat erabiltzen uzteagatik.

bultzatu zituen. Baina Lauaxetaren lana eraginkorra bezain izkutua izan zenez, hipotesietan bakarrik gabiltza.

Euzko-k, Jaun-Goikua eta Lagi-zarra azpтитuluarekin, bulegoa Bilboko Gran Vía 46.an zuen. Inprimatu Zabalgun-dia Irarkolan egiten zen. 1932an hamabi orrialde zituen, lau zutabetan banatuak; argazkiak ere bazituen. Atalei dagokienez, Ziarsolo bera arduratu zen “Astekua” izenekoaz, lehen orrialdean astero argitaratzen zena. Beste aldizkari batzuetan ere –*Argia*-n, esaterako– horrelako atalak agertzen ziren. Beste euskal aldizkari batzuetan bezala, ebanjelioak bazuen bere lekua, nahikoa garrantzitsua, *Euzko*-n “Goizparkua” izena zuena. Lehen orrialdean agertzen zen; “Astekua” beste muturreko zutabean agertzen zen. *Euzko* –*Argia* bezala– larunbatero kaleratzen zenez, atal hori “Bijar’ko Ebanjelioa” zen. Lehen orrialdea beste testu batzuek eta argazkiren batek betetzen zuten.

Bigarren orrialdean “Euzkadi’ko Izparrak” eta “Atzerritiko Izparrak” (Espainiakoak hor barne), berri laburrak, ia telegrafikoak, aurkitzen ditugu. Noizbehinka argazkiren bat ere agertzen zen.

Hirugarren orrialdean –hau *Argia* eta beste euskal aldizkarien antzera egina zen– nekazarietzako atal bat dugu: “Lugintzea”, bi zutabe betetzen zitue-na. “Itxasua” beste atal bat dugu. Lehenaren arduraduna *Txirri* zen eta bigarrenaz Andoni Ruiz de Azua “Ogoñope” arduratzen zen.

Laugarren orrialdean askotan ikusitako beste atal bat dugu, “Jel-Azija”. Geroago ere agertuko zen, adibidez, *Eguna*-n. Atal doktrinarioa, *Euzko*-n Arana-Goirik erdaraz idatzi eta Amil-

gaiñek itzulitako pentsakizunak ditugu, batzuetan, eta Amandañok idatzia beste batzuetan; baita Euzko Alderdi Jeltzalearen beste alderdikide batzuen ideologia ere. Bi zutabe betetzen zituen. Beste bi zutabeetan “Langillien arazuak” izeneko beste atal bat agertzen zen, atal sindikalista bat, 30.eko hamarkadan indartu zena. Euzko Langileen Alkartasunaren ideiak aldarrikatzen ziren bertan, beti sozialisten kontrakoak ederki azpimarratuz.

“Kirolak”, haien artean pilota nagusi zelarik, bosgarren orrialdearen protagonistak ziren. “Txirrindulariak”, “uribilketa”, “ukabilketa” eta beste kirolen berri ere bazekarren atal hark. Argazkiak ere, eta kalitate oso onekoak gainera, ikus zitezkeen orrialde honetan; 1932ko abenduaren 20an agertzen dena (bi motorista) adibide ezin hobea dugu. Hurrengo orrialdean “Etxekoandereen jakinbiarrak” (janarien salneurriak, errezetak...), ipuin eta kontakizunak zeuden.

Orrialderik garrantzitsuenak, gure ustez, hurrengo bostak ziren, hau da, zazpigarrena, zortzigarrena, bederatzigarrena, hamargarrena eta hamaikagarrena. Hauetan “Euzkadi errietako izparrak” zekarzkgigun, oso motzak. Beste euskal aldizkari batzuetan bezala, baina batik bat *Euzkadi* egunkarian egin ohi zuten bezala, Euskal Herriko herrietako berriei oso garrantzi handia ematen zieten. Informazio lokala behar bezala egiteko, berriemalere bat behar zuten, hau da, herri bakoitzetik bertako berriak bidaliko zituen gizaseme bat. Berriemalere Bizkaiko herrietan ezezik, Gipuzkoan ere aurkitzen ditugu. Bizkaian, besteak beste, bazegoen *Euzko*-ren berriemalere bat Abandon (Urdiola), Bilbon (Olalde), Basaurin (Basatxori bat), Galdakaon (Otarpe), Markinan (Ete), Bermeon

(Arrantzale), Gernikan (Saraspekua), Ean (Bitz-Erreka), Durangon (Uretabarren), Lezaman (Txirri), Arrigorriagan (Kepa), Elantxoben (Ogoñope), Mañarian (Mañariko), Akordan (Olane), Ondarroan (Itxartu bat), Larrabetzuan (Egixale), Mendatan (Albiz-Errotako), Barinagan, Muxikan, Ermuan (Ermuzale), Zaldibarren (Azkorgain), Lekeitio (Artzulokoak), Ereñon (Txiribir), Mundakan (Arrilar), Murelagan, Ubidean, Zamudion, Otxandion, Negurin, Ipazterren, Ibarrangelun, Frunitzen eta Zeanurin. Gipuzkoan *Euzko*-ra berriak bidaltzen zituzten herriak, besteak beste, Lazkao (Lazkao-Mendi), Segura (Otarra), Zarautz (Aitz-Gorri), Hondarribia (Kali), Soraluze (Drisdra), Azpeitia (Kirol), Elgoibar, Tolosa, Erreterria (Andoni), Antzuola, Mutriku eta Azkoitia ziren. Gehienak, bistan dago, Bizkaikoak ziren, ziur aski Gipuzkoakoek bazutelako berriak nora bidali, esaterako *Argia*-ra. Ikusten dugunez, sare zabal bat, batez ere Bizkaian.

Berriak, esan bezala, labur-laburrak izaten ziren, lerro bakan batzuk baino ez gehienetan, herriko ohiko gauzei zegozkienak. Badago abertzaletasunari eta EAJren eraginari buruz ari ziren artikulu mordo bat ere, hala nola jaioberriei emandako euskal izenei zegozkienak. Esan beharrik ez, ezinezkoa gertatzen zaigu herrietako berriemai-leak nortzuk ziren asmatzea. Badakigu, ordea, batzuk euskaldun berriak zirela, adibidez Mundakatik albisteak bidali eta “Kepa” ezizenez sinatzen zuena.

Euzko-ren orrialdeetan beren testuak ezagutarazi zituzten idazleak ere ugari ziren. Gertatu ohi denez, gehienek ezizen batekin (edo gehiagorekin) sinatzen zuten. Horregatik, batzuk ezagutzen ditugu, beste batzuk ordea

izkutuan geratu zaizkigu. Ezagutzen ditugu Manuel Ziarsolo “Abeletxe”, Tomas Agirre “Barrenso” (beste aldizkari batzuetan ez bezala, ipuinak eta testu literarioak ezezik *Euzko*-n agertzen zen atalik politikoen eta konprometituenetariko batez, “Langilien arazuak” izenekoaz ere ardurtzen zena), Kepa Amilgain, Ibon Uribitarte, M. Andonegi, Bernardo Garro (geroago “Otxolua” goitizena hartuko zuena), Perderika Belaustegigoitia, Estepan Arantzadi, Jon Garmendia “Zeleta”, Inazio Eizmendi “Basarri” eta Estepan Urkiaga “Lauaxeta”. Beste batzuen goitizena ezagutzen dugu: Amandaro, Artibai, Ogoñope, Urkidi, Utarsus, Uretabarren, Ane Miren, Azkorgain, Kai-alde, Astitxe, Ibai-gane, eta abar.

Euzko-rekin batera komikitxo bat saltzen zen, *Gastetxu*. *Euzko* baino txikiagoa zen. Hiru kolorez (gorri, berde eta beltzez) egina, orri bat baino ez zen, bi aldeetatik marraztua (bigarrena zuri-beltzez bakarrik). Guk ikusitako zenbakian “Kepatxu’ren larriak” izeneko historieta bat dago, A. Santafé Largatzak egina. Bederatzi bineta, tamaina berdinekoak, eta azpiko testuak ditugu, didaskalia moduan, garai hartako hemengo komikietan usu zenez. Bigarren orrialdean, lau historieta ditugu, esan bezala zuri-beltzezkoak: bederatzi binetako bat, bi tira (ezkerretarik eskubitara) eta beste tira bat, goitik beherakoa, Jogabek sinatua. Guztiak (azkena salbu, mutua baita) azpiko testu edo didaskaliek. Leku konkretua ezagutzen ez badugu ere, ziur dakigu beste inprimategi batean egiten zela, *Euzko*-ren 3. zenbakian (1932ko abuztuaren 13koan) «*Gastetxu* beste leku baten ataraten dogu» esaten baitzaigu. Dirudenez, *Gastetxu*-k oso harrera ona izan zuen, Bermeoko

berriemaleari kasu egingo badiogu²⁰.

Gastetxu, lehenago *Argia*-koen *Txistu* komikia eta Iruñeko kaputxinoek (zeinak *Zeruko Argia*-ren sortzaileak ziren) asmatu zuten komiki baten proiektua bezalaxe, umeentzako irakurgai zen, haur euskaldunak irakurtzen zaletu eta ikas zezaten. Bermeon bezala, hango berriemalea zen Arrantzale goitizenaren pean ezkutatzen zen idazle ezezagunari jaramonik egingo badiogu, Gipuzkoan ere komikiak ez zuen harrera epela izan²¹. Zenbait komiki –*Gaste-xu* adibidez– umeei jeltzaleen abertzaletasuna irakasteko ahaleginetan kokatu behar ditugu. 1933ko urtarrilaren 21etik *Euzko*-ren azken orrialdean beste historieta batzuk agertu ziren, *Gaztelu*-k marraztutako *Peru-Malluki* izenekoak. Apirila arte kaleratu ziren zuri-beltzez egindako historieta haiek baserritar baten ibilaldiak kontatzen zituzten. Beste aldizkari batean ere agertu ziren historieta berdinak, *Jagi-jagi*-n alegia.

Euzko euskal astekari politikoa zen, horrela defini dezakegu aldizkari hau. Euskal aldizkaria izanik, euskarak leku oso garrantzitsu bat betetzen zuen. Euskara hutsez idatzia, bere eredia sabindarra zen: neologismoz jositako bizkaiera, Sabino Aranak proposatu idazkeraz idatzia. Euskarari buruzko ideologia aztertuko dugu alde batetik. Beste alde batetik, *Euzko* astekari politikoa zen, jeltzalea.

Euskarari dagokionez, Amilgain dugu *Euzko*-ren ideologorik nabarmenena. Sabindar amorratua, dirudienez, hitz berriak edo neologismoak sortzea proposatzen zuen, “euskera berri” bat; aberri berriari zegokiona hain zuzen,

hau sortu ahal izateko. Dakigunez, jeltzaleek, Sabino Aranari hitzez hitz jarraiki, hizkuntza arraza kontzeptuaren osagaia eta adierazpidea zela uste zuten. Euskaldunen arrazaren bizimodu, mami eta funtsa, doktrina horretan, mendian, baserrian dago:

Euzkadi'ko basetxia da gure abenda, ele eta beste ottura gustijen iturri, bene-benetakua, berau da Euzkadi'ko abenda gustijaren jabolarik onena (...). Geure Euzkadi'n aurkittuten diran izkuntza nasai, joskera mots eta beste ottura gaizto gustijak atzerrijetatik etorri edo ekarri dabez eta orrek ekarri dabezanak asko aurkittuten dira len esan doguzan ola eta beste tokijetan eta orrexegattik geure semetxuok bere ikasten dabez gauza mots eta atzerritarrak geure Euzkadi'ren kaltez ekarrittako otturak (...)²².

Atzerritarrarenganako gorrotoa etengabe isuritzen zen *Euzko*-ren orrialdeetan. Azken batean, euskarari buruzko ideiak Euzko Alderdi Jeltzalearen doktrina politikoarenak ziren, hitzez hitz eta puntuz puntu, Sabino Aranak asmatu, Ebaristo Bustintzak gauzatu eta *Euzkerea* aldizkari sasi-filologikoak zabaldu zituenak: hizkuntza, arrazaren ezaugarririk nagusiena eta beste herri eta arrazetatik euskaldunak –edo, Aranaren beraren hitzak erabiliz, *euzkotarrak*– gehien bereizten zuen gauza izanik, ez dira batere harritzekoak hizkuntza ahalik eta ezberdinena egiteko ahaleginak. Ondorioz, “euskera berri” hura, hiritarra bazen ere –hirietan, Bilbon batez ere, asmatua baitzen–, baserrietatik bide zetorren arrazaren izpiritu harekin lotzeko asmoz, antzina galdutako garbitasun hipotetiko hura berreskuratzeko asmoz edo, ideologikoki

20. *Euzko*, 1932ko abuztuak 20, 4. zenbakia, 7. orrialdea.

21. *Ibidem*.

22. *Euzko*, 1932ko abuztuak 27, 5. zenbakia, 3. orrialdea.

mendietako euskararekin lotzen zuten. Ideologikoki, eta ez praktikoki, *Euzko* eta beste aldizkari jeltzaleetan agertzen zen euskara ez baitzen, argi dago, baserritarrena.

Euzko-ren euskara –*euzkerea*, berriro Aranaren terminologia erabiliz– Euzkeltzale Bazkunarena zen, eta hau Kirikiñorena. Zer esanik ez, Kirikiñoren itzala nonahi agertzen zela. Euskararen eredia Bilboko Euzko Gaztediaren ikastoletan irakasten zena zen.

Eskarrak Arana-Goiri'ttarr Sabin'en jarratzalle amorratuba dan Euzko Gastedi oneri, ta beronen zabelian sorturiko Euzkeltzale Bazkuna'ri (...). Euzkerea abertzaletasunak jasoko dau, eta ez "euscalerriqueriac (...)"²³.

Eskolak urriaren 15ean hasi ziren, goizean, eguerdian eta gauean, eta hiru ikastaro ziren. Hirurehun bat ikasle joaten ziren.

Goazen orain *Euzko*-ren ezaugarri ideologikoak, politikari dagokionez, aztertzea. Gorago ikusi dugu gorrotorik handiena sozialistek jasotzen zutela. Gorrotoa batez ere *El Liberal* egunkarian eta Indalecio Prietorengan gauzatzen zen²⁴. Politikaz hitz egiterakoan, *Euzko* egiten zutenen mintzaira gogorra izaten zen. *Euzko* nolabait Euzko Alderdi Jeltzalearen bozerama-lea bazen ere, bere orrialdeetan agertzen ziren mezuak erdarazko beste testuetan irakur zitezkeenak (*Euzkadi* egunkarikoak, adibidez) baino erradikalagoak izaten ziren. Estatutua lortzeko eztabaidan, *Euzko*-n urrutiago joan ziren:

23. 1932/X/1, 10. zenbakia.

24. *El Liberal* «atzerritarrak daukoen izkullurik arailtzallena» zen, *Euzko*, 1932ko urriak 21, 13. zenbakia, 12. orrialdea.

25. *Euzko*, 1932ko irailak 18, 8. zenbakia.

26. 1932/VII/31, 1. zenbakia.

Catalunya'k lortu dauan Araudija naikua ete litzake Euzkadi'n jagitten dan abertzaletasunaren egarrija asetuteko? Catalunya'tarr askorentzako, geyenen-tzako, lortu daben Araudija, naikua dala-ta gagoz (...). Catalunya'ko katalanistakattik sarri entzun dogu emengo "euzkalerriakoen" antzeokoak direla. Euzkerea goxian eta zezenak arratsaldian; erdija euzkottarra ta beste erdija españa'tarra (...). Emen Euzkadi'n be, "euzkalerriakuen" onduan bai-dagoz orretariko batzuek, eta Euzko Araudija lortuten bada, orduantxe ezautuko doguz nortzuk eta zenbatzuk diran ordalleko abertzale-euzkotarrak, Araudija gauza on-ona ixango litzake gustijoen bijotzian euzkotasuna sartzeko berori egitteko erreztasun geyago eukiko genduke ta. Baña ezta ori Euzko Alderdi Jeltzalia'ren egarrijak asetzen dauzan iturrija. Ezta Euzko Araudija Euzkadi'ren eskubidiak ornituko dauzan neurkiña (...). Au ezta besterik ixango EUZKADI AZKATUTEA baño²⁵.

«Euzkadi azkatu biarr dogu», hura-xe zen testu honen izenburua. Eus-kalerriakoak gorrotatuak baldin bazi-ren, karlistak ere berdintsu. Haiei, esa-terako, euskara desagertaraztea lepo-ratzen zieten²⁶. Hala zioen Amilgai-nek. Baina gorrotatuenak ez ziren ez euskalerriakoak ez karlistak, sozialis-tak baino. *Euzko*-k "sosolistoak" deizen zien, eta horrela definitzen zituen:

Jaungoiko'rik ez dute siñisten, edo beintzat geyenak siñisten ez ba'lukete bezala azkatasun izugarriaz dabilta kalietan. Uste dute aberatsen ondasunak eurenak dirala, eta ausarkeri aundiaz bakoitzak poltsikoan suizkillu bat arruta edonori aurpegia lotsagabe

ematen diote, baita illotzik utzi ere, orrenbeste aldiz ikusten degunez (...)27.

Sozialista eta abertzaleen arteko bortizkeria ez zegoen hitzetan bakarrik; kalean ere bazegoen gatazkarik. 1933an, batez ere, haien arteko borrokak odola isurtzera iritsi ziren28. Elkarren arteko borrokak eta gatazkek alde sindikalera joaten ziren. Euzko Langilleen Alkartasunak gero eta indar gehiago lortzen zuelarik, etsairik handiena UGT zen. Langile euskaldunak eta atzerritarrak (UGT eta ezkerreko sindikatueta batez ere afiliatuta zeudenak) elkarren kontra jarri nahi zituzten. *Euzko*, nola ez, sindikatu abertzaleen alde azaltzen zen; ez bakarrik ELAren alde –gogora dezagun “Langillien arazoak” deitutako atala, zeinean sindikatuaren ideologia adierazten den–; baita Policarpo de Larrañaga apaizak 30.eko hamarkadan sorturiko Euzko Tostarteko Bazkuna eta Euzko Nekazarien Bazkunaren alde ere. Azken honen bozeramale bihurtu zen hamarkada hartan *Argia*, eta, nahiz eta Bizkaian ere hedatuta egon, benetako garrantzia Gipuzkoan zegoen. Lehenago ere sortu zen Ondarroan Euzko Tostarteko Bazkuna. Euzko Nekazarien Bazkuna bezala, zerbitzu-sindikatu moduan aurkezten zen, baina ELArekin harremanak nabariak ziren. Policarpo de Larrañagak 1932an sortua, Euzko Tostarteko Bazkunaren zuzendaria Ander Lersundi izan zen. Arrantzaleen sindikatu honen helburuak hauexek ziren:

Tostarteko Alkartasuna ezta besterik euren [arrantzaleen] eskubidiak aldeztuteko baño sortu; arrantzaliak eurenak dabezan eskubidiak, Jaungoikua'k langille ta txiro gustijei emonak. Gaur

egunean Elexa Ama Deuna'k dauzan arerijorik gogorrenak langilleak dira. Sosolisto, komunista, sindikalista eta abar dira gaur Elexa'ren arerijorik purrukatubenak (...). Origattik, eta langille orreik arrotzak diralako gure artian, gure langilliak batu ta elkarriu biarr doguz, nai legorrekuak, nai itxasokuak (...)29.

Euzko-k 1934an kaleratzeari utzi zion. Garai hartako beste euskal aldizkarietan haren heriotzaren berri ematen zaigu. Nahiz eta iragarki ugari eduki –gehienak Bilbokoak, eta honek *Euzko* batez ere Bilbon saltzen zela esan nahi du–, haren desagerpenaren arrazoia salmenta eskasak dira. Kopuru zehatza ez badakigu ere, badugu hori esateko arrazoirik, adibidez Ogoñoperen aitormena:

¿Zenbat Euzko euzkal-izparringi-abertzale saltzen dira Bilbao'ko 30.000 euskaldun artian? Berreun (200) baño ez, eta au lotsagarrijetan-be lotsagarrija da (...)30.

Kontuan izanik *Euzko* Bizkaian ia bakarrik, Bilbon gehienbat, saltzen zela, eta Bizkaiko beste herrietara eramatea –are gehiago Gipuzkoako eta Arabako herrietara– garestia izan behar zela, beldurrik gabe esan deza-kegu *Euzko* arazo ekonomikoengatik desagertu zela. Baina horrek ez du derrigorrez esan nahi porrot egin zuenik; gure ustez, *Euzko*-k zeregin garrantzitsu bat bete zuen, atal honen hasieran azaldua hain zuzen ere, Bizkaian (eta bizkaieraz) jeltzaleek euskara hutsez egindako informazio orokorreko aldizkaria izan baitzen, eta euskara hutseko egunkariaren (*Eguna* izango zena) eredua izateko meritua izan zuen.

27. Agirre: “Sozialistak eta aberatsenganako gorrotoa”, *Euzko*, 1932/IX/27, 5. zenbakia.

28. 1933/V/10, 45. zenbakia.

29. 1932/IX/18, 8. zenbakia.

30. 1933/III/4, 32. zenbakia.

Bibliografia

- Bustintza, E. (1984a): *Edo geuk edo iñok ez*, Labayru, Bilbo.
_____, (1984b): *Egunekoak*, Labayru, Bilbo.
- Mees, L. (1990): "El nacionalismo vasco entre 1903 y 1923", *Euzko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección, Historia-Geografía 17*, Donostia.
- Reizabal Arruabarrena, G. (1973): *Eguna, único diario en euskera (Bilbao, 1937)*, [Nafarroako Unibertsitateko Informazio Zientzietako Fakultatean 1973ko irailaren 10ean irakurritako tesina].
- Urkiaga, E. (*Lauaxeta*) [Kortazar, J. arg.] (1982): *Azalpenak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- Villasante, L. (1979): *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, Burgos.